



Kosmodiseak arrakasta handiz eman dio bukaera 2007-2008 edizioari, 34 ikastetxe, 117 talde, 1.037 gazte eta 76 irakasleren parte-hartzearekin. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak bultzatu du ekimena, hezkuntzan kultura ekintzailearen eta kultura digitalaren balioak sustatzeko. Sarituak izan diren 15 lanak ondorengo ikastetxeei dagozkie: Basakaitz Herri Ikastetxea (Aizarnazabal), Txingudi Ikastola (Irun), Elgoibar Ikastola, Orokieta Herri Ikastetxea (Zarautz), San Benito Ikastola (Lazkao), San Vicente de Paul (Irun), Aranzadi Ikastola (Bergara), Lasarte-Usurbil BHI, Nazaret Zentroa, La Salle Berrozpe eta Bidasoa GLHBI.

Kosmodiseako bigarren edizioa, 2007ko urrian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak ekintzaileei eta kultura digitalari ematen dion babesaren barruan sustatu duena, parte-hartzearen dagokionean, emaitza bikainekin bukatu da. Guztira, 34 ikastetxe, 1.037 ikasle -117 taldetan banatuta-, eta 76 irakasle izan dira lankidetzaren ekimenean parte hartu dutenak. Kosmodiseak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiliz, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan, kultura ekintzailearen balioak sustatu nahi ditu, era berean ekimena, sormena eta berrikuntza bultzatuz.



Bigarren edizioa bukatu den honetan, irabazleak, hezkuntza-mailaren arabera zerrendatuta, 11 ikastetxetako 15 talde izan dira:

* Lehen Hezkuntza (6, 7 eta 8 urte).

- 1.- HAMAIRUROK. Basakaitz Herri Ikastetxea (Aizarnazabal) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 2.- JAIZU. Kosmopuntu Txingudi Ikastola (Irun) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 3.- TXINGU. Kosmopuntu Txingudi Ikastola (Irun) ([Irakurri elkarrizketa](#))

* Lehen Hezkuntza (9, 10 eta 11 urte)

- 1.- IKASEIA. Elgoibar Ikastola (Elgoibar) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 2.- ENBATA. Orokieta Herri Ikastetxea (Zarautz) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 3.- LH6A. San Benito Ikastola (Lazkao) ([Irakurri elkarrizketa](#))

* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

- 1.- SURFBONG. San Vicente de Paul (Irun) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 2.- ROCKER@S. San Vicente de Paul (Irun) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 3.- YOLA BERROCAL. Aranzadi Ikastola (Bergara) ([Irakurri elkarrizketa](#))

* Batxilergoa.

- 1.- LENINGRADO. BHI Lasarte-Usurbil (Lasarte) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 2.- NzOdisea. Nazaret Zentroa (Donostia) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 3.- FILOSOFIA. La Salle Berrozpe (Andoain) ([Irakurri elkarrizketa](#))

* Heziketa Zikloak.

- 1.- UNIELECTRIK. Bidasoa GLHBI (Irun) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 2.- SPACE QUEST. Nazaret Zentroa (Donostia) ([Irakurri elkarrizketa](#))
- 3.- NzDA3. Nazaret Zentroa (Donostia) ([Irakurri elkarrizketa](#))

Kosmodiseako 2007-2008ko edizioan irabazle izan direnak saritzeko, Kursaal Jauregian jaialdia ospatu zen bertaratutako 1.500 pertsonekin. Bertan, ekimenean parte hartu zutenek ikus-entzunezko ikuskizun zirraragarriaz gozatzeko aukera izan zuten; gainera, rap abestiak, hainbat dantza, antzerki-jokoak eta umorez beteriko pasarteak ikusteko aukera ere izan zuten.

Ekitaldi horretan, eta kontuan izanda Kosmodiseak izan dituen bi edizioetan lortutako arrakasta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza Diputatuak, José Ramón Guridik ([Irakurri elkarrizketa](#)), datorren ikasturtean Kosmodiseak jarraitu egingo duela iragarri zuen.